



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

USaP
2024/25

AZTERKETA EREDUA

PAU
2024/25

MODELO DE EXAMEN



HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACION

ARTE ESZENIKOAK

ARTES ESCÉNICAS

AZTERKETARAKO ARGIBIDEAK

Azterketa honek LAU atal ditu: lehenengo biak erantzun bakarrekoak eta azken biak, bi azpiatalen artean hautatzeko aukerarekin. Hona hemen puntuazioak:

- 1. Atala. Ondare eszenikoa. Adierazpen eta komunikazio eszenikoa (3,5 puntu).
- 2. Atala. Harrera arte eszenikoetan (1,5 puntu).
- 3. Atala. Interpretazioa, antzezpena eta eszenifikazioa. (2,5 puntu).
- 4. Atala. Terminologia teknikoa (2,5 puntu).

Atal bakoitzari erantzun behar diozu. Jarraibideetan adierazitakoei baino galdera gehiagori erantzunez gero, erantzunak ordenari jarraituta zuzenduko dira, harik eta beharrezko kopurura iritsi arte.

Ez ahaztu azterketa-orri guztietan kodea jarri behar duzula.

Azterketa egiteko, 90 minutu dituzu.

1. atala. Ondare eszenikoa. Adierazpen eta komunikazio eszenikoa (3,5 puntu).

Bilboko Arriaga Antzokiak gorabidean dauden konpainiak hautatzeko deialdia egin du, eta Sofoklesen *Antigona* obraren proposamen eszenikoa eskatu du. Zuk, deialdi horretara aurkezten den konpainia bateko kide zaren aldetik, Arriaga Antzokiko hautaketa-batzordeari honako atal hauek azaldu behar dizkiozu hautatua izateko:

- Obraren fitxa: egilea, garaia, kokapen geografikoa, antzerki-generoa (0,5 puntu).
- Egilearen ideia artistikoak (0,5 puntu).
- Aztertutako obra zer alderdi soziokultural eta estetikan kokatzen den eta garai horretako antzerki- eta arte-korronteak (0,5 puntu).
- Argumentua, obran ageri den gatazka nagusia eta jorratzen dituen gaien gaurkotasuna. (1 puntu).
- Zure kezka artistikoetan oinarrituta, zer rol hartuko zenuke zure gain konpainiaren barruan? Zergatik? Zerrendatu zer funtzio edo zeregin beteko zenituzkeen (1 puntu).

Antzerki-obraren iruzkinean eta analisisian, hauek balioetsiko dira: koherentzia eta kohesioa, aberastasun lexikoa, hizkuntza-adierazpen egokia, zuzentasun ortografikoa eta gaiaren oinarri buruzko ezagutzak. Jarraian, obraren zati bat daukazu erreferentzia gisa erabil dezakezuna.

KREON (*Antigonari*): Eta zuk, aurpegia lurrera okertzen duzun horrek, hori egin izana berretsi ala gezurtatu egiten duzu?

ANTIGONA: Berresten dut, bai; nik egin nuen, eta ez dut ukatzen.

KREON. (*Zaindariari*): Nahi duzun tokira joan zaitezke, jada ez duzu nik egotzitako erruaren pisua. (*Zaindaria iriteten da*).

Baina zuk (*Antigonari*) esadazu labor-labor, luzatu gabe; ba al zenekien hori ez egiteko agindua zegoela?

ANTIGONA: Bai, banekien: nola ez nuen jakingo? Denek dakite hori.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

USaP
2024/25

AZTERKETA EREDUA

PAU
2024/25

MODELO DE EXAMEN



HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACION

ARTE ESZENIKOAK ARTES ESCÉNICAS

KREON: Eta, hala ere, ausartu al zinen legearen gainetik pasatzen?

ANTIGONA: Ez zidan Zeusek eman agindu hori, eta Dikek ere, lurpeko jainkoen lagunak, ez zuen inoiz horrelako legerik zehaztu gizakien artean. Eta ez nuen uste zure dekretuek indarra izango zutenik baimentzeko gizon batek jainkoen lege idatzi eta aldaezinen gainetik jauzi egitea: lege horien indarraldia ez da ez gaurkoa, ez atzokoa, betikoa baizik, eta inork ez daki noiz agertu ziren. Ez nuen, bada, jainko-jainkosen zigorra erakarriko norbaitek pentsa zezakeenaren beldurrez: jada ikusten nuen, bai, nire heriotza —eta nola ez?—, nahiz eta zuk ezer ez agindu; eta, behar baino lehen hiltzen banaiz, nik esaten dut onuragarria dela: ni bezala hainbeste gaitzen artean bizi denari ez al zaio, bada, mesedegarri heriotza? Eta hala, ez da zoritxarra, niretzat, helmuga hori izatea; eta, aldiz, nire amaren seme baten gorpua hilobiratu gabe balego eta nik jasango banu, hori bai mingarria litzaidake; bestea, ordea, ez zait mingarri gertatzen: baliteke zuri iruditzea nik ero moduan jokatu nuela, baina, gutxi gorabehera, ero bati ematen diot nire erotasunaren berri.

KORUA: Ausardia suharra erakutsi du gazteak, aita suhar baten alaba izaki: ez daki zer den zorigaitzari amore ematea.

KREON (*Koruari*): Bai, baina jakizu pentsamendu zorrotzenak direla erortzen lehenak: Izan ere, sutan galdatuta ezin sendoago eta hain gogor bihurtzen den burdina sarritan ikusiko duzu nola pitzatzen den, zartaduraz beteta; ezagutzen dituk ahoko txiki batek menderatu dituen zaldi suharrak; ez dagokio harrokeria bizilagunaren esklabo denari; eta bera primeran ohartzen zen bere harrokeriaz, ezarritako legeak hautsi zituenean; eta, hori egin ondoren, beste harrokeria bat: harropuztea eta poza erakustea hori egiteagatik. Gizona ez naiz ni, benetan, bera da gizona baldin eta, hori eginda, agintearen pisua sentitzen ez badu; baina, nahiz eta nire ahizparen odola izan, nahiz eta nire etxeko buru den Zeus guztia baino are nire odolekoagoa izan, ez berak ez beraren ahizpak ezingo dute ihes egin heriotza lotsagarritik, beraren ahizpari ere leporatzen baitiot ehorzteko erabakian parte hartu izana.

(...)

ANTIGONA: Banaukazu: nire heriotzaz besterik behar al duzu?

KREON: Nire aldetik, besterik ez; hau edukita, dena daukat.

ANTIGONA: Zeren zain zaude, bada? Niri, zure hitzek ez didate atseginik ematen, eta ez lirateke inoiz iritsiko niri atsegin ematera; eta nireak ere desatseginak zaizkizu. Nolanahi ere, nola lor nezake loria loriatsuagorik nire anaia lurperatuta baino? Horiek guztiek esango lizukete nire ekintza gogoko dutela, beldurrak ahoa itxita atxikiko ez balitu; baina tiraniak badu, beste abantaila askoren artean, nahi duena egin eta esan ahal izatea.

2. atala. Harrera arte eszenikoetan. Antzerki-teoriaren edo -kritikaren gaineko testu labur bati buruzko iruzkina (1,5 puntu).

Testuaren ideia nagusiak eta bigarren mailako ideiak identifikatu agertzen diren termino teknikoak erabilita (1,5 puntu).

Godoten esperoan. Miguel Gabaldon, Antzerki-beharra, 2013/05/10

<https://espectaculosenmadrid.wordpress.com/2013/05/10/esperando-a-godot-dirigida-por-alfredo-sanzol-absurdo/>

ARTE ESZENIKOAK ARTES ESCÉNICAS



Argazkia: <https://teatro.com/esperando-a-godot-2013/>

Alfredo Sanzol-ek *Godoten esperoan* dibertigarri bat darama Teatro Valle-Inclán antzokira. “Ez zagok zer eginik”, dio Estragon-ek *Godoten esperoan*-en hasieran. Baina Alfredo Sanzol-ek egin egin du: Samuel Beckett-en klasikoa Madrilera Teatro Valle-Inclánen oholtza gainean jartzen saiatu da, eta irlandarraren hitzez bete du agertokia. Absurdoz gainezka jarri du antzokia. Eta barrez, barrez gainezka. Izan ere, Beckett-en testuari hamaika modutara ekin dakiok [...]

Urdin infinituko oihalak altxatzen dira Valle-Inclánen agertokiaren goialderantz (amaigabeak, ibilbidearen erdian foku-itsaso bat dutela), ikusleari ongiatorria emanez. Eszenan, askoz gehiagorik ez: zuhaixka batzuk eta zuhaitz ospetsua (zuhaiak horietako beste bat izan liteke berdin-berdin); haren ondoan, Estragon eta Vladimir, Godot-en zain, baina Godot ez da inoiz iritsiko. [...] Ez da ezer gertatzen maila dramatikoan. Ez dago planteamendurik, korapilorik eta amaierarik (zer esango luke Syd Field-ek horri buruz...). Horren ordez, luzamendua dago, atzerapena, luzapen etengabea. Eta itxarote horretan, makina bat xehetasun. Eta bitartean, ez da ezer gertatzen. Beno, bai. Bizitza. Sanzol-ek pertsonaia horien alderdirik komiko eta zoroena bultzatzeko antolatu du eszenaratzea, eta une benetan dibertigarriak lortzen dituzte haiek. [...] Sanzol-ek ikuskizun arin bat prestatu du, argiz eta mugimenduz bete, joan den mendeko absurdo klasiko honekin dibertitzea lortzen duena (eta horren frogara diru institutu-txangoetatik tropelean iritsita funtzioan dauden neska-mutilen barre-algarak). [...] Izan ere, barrearen atzean, idazlan “izugarri komiko” horren atzean, autoreak berak zioenez, larritasun infinitua dago, gizakiaren absurdo hori. Gizaki atsekabetu bat, XX. mendearen lehen erdiko gatazka beliko handien ondoren desorientatua. [...]

CDN Aretoa: Teatro Valle-Inclán. 2013/4/19. Egilea: Samuel Beckett. BERTSIOA: Ana María Moix. Zuzendaritza: Alfredo Sanzol. Zuzendaritza-laguntzailea: Pietro Olivera. Produktzioa: Centro Dramático Nacional. Aktoreak: Miguel Ángel Amor, Paco Déniz, Juan Antonio Lumberras, Juan Antonio Quintana, Pablo Vázquez. Eszenografia: Alejandro Andújar. Argiztapena: Pedro Yagüe. Fotografia: David Ruano.

Koherentzia eta kohesioa, aberastasun lexikoa, hizkuntza-adierazpen egokia, zuzentasun ortografikoa eta gaiaren oinarri buruzko ezagutzak balioetsiko dira.

3. atala. Interpretazioa, antzezpena eta eszenifikazioa (2,5 puntu).

Bi aukeren artean bat aukeratu eta erantzun:



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

USaP
2024/25

AZTERKETA EREDUA

PAU
2024/25

MODELO DE EXAMEN



ARTE ESZENIKOAK ARTES ESCÉNICAS

- A) Ikasturtean zehar burututako esperientziak (eta ikusitako lan eszenikoak) oinarri hartuta, deskribatu nola konpondu zenuten edo nola konponduko zenituzkeen eszenaratzean inplikaturako alderdiak (dramaturgia, eszenografia, jantziteria, karakterizazioa, soinu-espazioa, mugimendu-eszenikoa...) (2,5 puntu).
- B) Deskribatu ikasgelan pertsonaia baten ezaugarriak hartzeko egin duzun gorputz-adierazpeneko ariketa bat, eta arrazoitu nola aplikatu den eszenan (2,5 puntu).

Koherentzia eta kohesioa, aberastasun lexikoa, hizkuntza-adierazpen egokia, zuzentasun ortografikoa eta gaiaren oinarri buruzko ezagutzak balioetsiko dira.

4. atala. Terminologia teknikoa (2,5 puntu).

A edo B aukeren artean bat aukeratu eta definitu agertzen diren 5 termino teknikoetako bakoitza. Erantzunek argiak eta laburrak izan behar dute. Bost lerro nahikoak dira bakoitzeko.

- | | |
|---|---|
| A) Stanislavski metodoa (0,5 puntu).
Laugarren horma (0,5 puntu).
Arlekina (0,5 puntu).
Pastorala (0,5 puntu).
Tramoyiaria (0,5 puntu). | B) Komedia-antzokia (0,5 puntu).
Katarsia (0,5 puntu).
Albo-hizketa (0,5 puntu).
Argiztatzailea (0,5 puntu).
Maitaleak (0,5 puntu). |
|---|---|

Zuzentasun terminologikoa eta sintaktikoa balioetsiko da, eta 0,5 puntu emango zaio bakoitzari.

ARTE ESZENIKOAK ARTES ESCÉNICAS

INSTRUCCIONES PARA EL EXAMEN

Este examen consta de CUATRO apartados: los dos primeros de respuesta única y los dos últimos, con posibilidad de elección entre dos subapartados. Las puntuaciones son las siguientes:

- Apartado 1. Patrimonio escénico. Expresión y comunicación escénica (3,5 puntos).
- Apartado 2. Recepción en las artes escénicas (1,5 puntos).
- Apartado 3. Interpretación, representación y escenificación (2,5 puntos).
- Apartado 4. Terminología técnica (2,5 puntos).

Debes contestar a cada uno de los apartados. En caso de responder a más preguntas de las estipuladas, las respuestas se corregirán en orden hasta llegar al número necesario.

No olvides incluir el código en cada una de las hojas de examen.

La duración del examen es de 90 minutos.

Apartado 1. Patrimonio escénico. Expresión y comunicación escénica (3,5 puntos).

El Teatro Arriaga de Bilbao ha lanzado una convocatoria para la selección de compañías emergentes donde solicita una propuesta escénica de la obra *Antígona* de Sófocles. Usted, como parte integrante de una compañía que opta a dicha convocatoria, ha de explicar a la comisión de selección del Teatro Arriaga los siguientes apartados para ser seleccionado/a:

- Ficha de la obra: autor/a, época, localización geográfica, género teatral (0,5 puntos).
- Ideas artísticas del/la autor/a (0,5 puntos).
- Aspectos socioculturales y estéticos en los que se enmarca la obra analizada, corrientes escénico-artísticas de la época (0,5 puntos).
- Argumento, conflicto principal que aborda la obra y vigencia de las temáticas que trata hoy en día (1 punto).
- En base a tus inquietudes artísticas personales, ¿qué rol o roles asumirías dentro de la compañía? ¿Por qué? Enumera las funciones o tareas que desempeñarías (1 punto).

En la propuesta escénica se valorará la coherencia y cohesión, la riqueza léxica, la utilización de la expresión lingüística adecuada, la corrección ortográfica y los conocimientos sobre los fundamentos de la materia. A continuación, dispone de un fragmento de la obra que le puede servir de referencia.

CREONTE (*a Antígona*): Y tú, tú que inclinas al suelo tu rostro, ¿confirmas o desmientes haber hecho esto?

ANTÍGONA: Lo confirmo, sí; yo lo hice, y no lo niego.

CREONTE. (*Al guardián.*): Tú puedes irte a dónde quieras, ya del peso de mi inculpación.

(*Sale el guardián.*)

Pero tú (*a Antígona*) dime brevemente, sin extenderte; ¿sabías que estaba decretado no hacer esto?



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

USaP
2024/25

AZTERKETA EREDUA

PAU
2024/25

MODELO DE EXAMEN



ARTE ESZENIKOAK ARTES ESCÉNICAS

ANTÍGONA: Sí, lo sabía: ¿cómo no iba a saberlo? Todo el mundo lo sabe.

CREONTE: Y, así y todo, ¿te atreviste a pasar por encima de la ley?

ANTÍGONA: No era Zeus quien me la había decretado, ni Diké, compañera de los dioses subterráneos, perfiló nunca entre los hombres leyes de este tipo. Y no creía yo que tus decretos tuvieran tanta fuerza como para permitir que solo un hombre pueda saltar por encima de las leyes no escritas, inmutables, de los dioses: su vigencia no es de hoy ni de ayer, sino de siempre, y nadie sabe cuándo fue que aparecieron. No iba yo a atraerme el castigo de los dioses por temor a lo que pudiera pensar alguien: ya veía, ya, mi muerte –¿y cómo no?–, aunque tú no hubieses decretado nada; y, si muero antes de tiempo, yo digo que es ganancia: quien, como yo, entre tantos males vive, ¿no sale acaso ganando con su muerte? Y así, no es, no desgracia, para mí, tener este destino; y en cambio, si el cadáver de un hijo de mi madre estuviera insepulto y yo lo aguantara, entonces, eso sí me sería doloroso; lo otro, en cambio, no me es doloroso: puede que a ti te parezca que obré como una loca, pero, poco más o menos, es a un loco a quien doy cuenta de mi locura.

CORO: Muestra la joven fiera audacia, hija de un padre fiero: no sabe ceder al infortunio.

CREONTE (*Al coro*): Sí, pero sepas que los más inflexibles pensamientos son los más prestos a caer: Pues el hierro que, una vez cocido, el fuego hace fortísimo y muy duro, a menudo verás cómo se resquebraja, lleno de hendiduras; sé de fogosos caballos que una pequeña brida ha domado; no cuadra la arrogancia al que es esclavo del vecino; y ella se daba perfecta cuenta de la suya, al transgredir las leyes establecidas; y, después de hacerlo, otra nueva arrogancia: ufanarse y mostrar alegría por haberlo hecho. En verdad que el hombre no soy yo, que el hombre es ella si ante esto no siente el peso de la autoridad; pero, por muy de sangre de mi hermana que sea, aunque sea más de mi sangre que todo el Zeus que preside mi hogar, ni ella ni su hermana podrán escapar de muerte infamante, porque a su hermana también la acuso de haber tenido parte en la decisión de sepultarle.

(...)

ANTÍGONA: Ya me tienes: ¿buscas aún algo más que mi muerte?

CREONTE: Por mi parte, nada más; con tener esto, lo tengo ya todo.

ANTÍGONA: ¿Qué esperas, pues? A mí, tus palabras ni me placen ni podrían nunca llegar a complacerme; y las mías también a ti te son desagradables. De todos modos, ¿cómo podía alcanzar más gloriosa gloria que enterrando a mi hermano? Todos éstos, te dirían que mi acción les agrada, si el miedo no les tuviera cerrada la boca; pero la tiranía tiene, entre otras muchas ventajas, la de poder hacer y decir lo que le venga en gana.

Apartado 2. Recepción en las artes escénicas. Comentario de un texto breve sobre teoría o crítica escénica (1,5 puntos).

Identifica de las ideas principales y las ideas secundarias del texto empleando los términos técnicos que aparecen en el texto (1,5 puntos).

Esperando a Godot. Miguel Gabaldon, Mono de teatro, 10/05/2013

<https://espectaculosenmadrid.wordpress.com/2013/05/10/esperando-a-godot-dirigida-por-alfredo-sanzol-absurdo/>

ARTE ESZENIKOAK ARTES ESCÉNICAS



Fotografía: <https://teatrero.com/esperando-a-godot-2013/>

Alfredo Sanzol lleva un divertido Esperando a Godot al Teatro Valle-Inclán “No hay nada que hacer”, dice Estragón al comienzo de Esperando a Godot. Pero Alfredo Sanzol hace y se atreve a poner el clásico de Samuel Beckett sobre las tablas del Teatro Valle-Inclán de Madrid, llenando el escenario de las palabras de irlandés. Colmando el teatro de absurdo. Y de risas, muchas risas. Porque el texto de Beckett se puede afrontar de mil maneras [...]

Telas de azul infinito que se elevan hacia las alturas del escenario del Valle-Inclán (interminables, con un mar de focos a medio recorrido) dan la bienvenida al espectador. En escena, poco más: algunos arbustos y el famoso árbol (que más bien podría ser otro arbusto más) a la vera del cual Estragón y Vladimir esperan a Godot sin que éste llegue jamás. [...] No sucede nada a nivel dramático. No existe planteamiento, nudo y desenlace (qué diría Syd Field de esto...). En su lugar hay dilación, retraso, una prórroga continua. Y en esa espera, una multitud de detalles. Y nada sucede mientras tanto. Bueno, sí. La vida.

Sanzol centra su puesta en escena en potenciar la vertiente más cómica y loca de estos personajes, que consiguen momentos realmente divertidos. [...] Sanzol consigue un espectáculo ligero, lleno de luz y de movimiento, que divierte (y muestra son las risas de la chavalada presente en la función, hordas de excursiones de instituto) con este absurdo clásico del siglo pasado. [...] Porque, detrás de la risa, de esa obra “horriblemente cómica”, como decía el propio autor, está la angustia infinita, ese absurdo del ser humano. Un ser humano desolado, desorientado tras los grandes conflictos bélicos de la primera mitad del siglo XX. [...]

CDN Sala: Teatro Valle-Inclán. 19/4/2013. AUTORIA: Samuel Beckett. Versión: Ana María Moix. DIRECCIÓN: Alfredo Sanzol. AYUDANTE DE DIRECCIÓN: Pietro Olivera. PRODUCCIÓN: Centro Dramático Nacional REPARTO: Miguel Ángel Amor, Paco Déniz, Juan Antonio Lumbreras, Juan Antonio Quintana, Pablo Vázquez. ESCENOGRAFÍA: Alejandro Andújar. ILUMINACIÓN: Pedro Yagüe. FOTOGRAFÍA: David Ruano.

Se valorará la coherencia y cohesión, la riqueza léxica, la utilización de la expresión lingüística adecuada, la corrección ortográfica y los conocimientos sobre los fundamentos de la materia.

Apartado 3. Interpretación, representación y escenificación (2,5 puntos).

Elige una de las dos opciones entre A o B:



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

USaP
2024/25

AZTERKETA EREDUA

PAU
2024/25

MODELO DE EXAMEN



ARTE ESZENIKOAK ARTES ESCÉNICAS

- A) Basándote en tus propias experiencias desarrolladas durante el curso (y en aquellas obras escénicas vistas) describe cómo resolvisteis o cómo resolverías los diferentes aspectos implicados en la puesta en escena (dramaturgia, escenografía, indumentaria, caracterización, espacio sonoro, movimiento escénico...) (2,5 puntos).
- B) Describe un ejercicio de expresión corporal que hayas realizado en clase para adoptar las características de un personaje y razona su aplicación a la escena. (2,5 puntos)

Se valorará la coherencia y cohesión, la riqueza léxica, la utilización de la expresión lingüística adecuada, la corrección ortográfica y los conocimientos sobre los fundamentos de la materia.

Apartado 4. Terminología técnica (2,5 puntos).

Elige una de las dos opciones entre A o B y define cada uno de los 5 términos técnicos que aparecen. Las respuestas deben ser claras y breves; será suficiente con cinco líneas como máximo para cada una de ellas.

- A) Método Stanislavski (0,5 puntos).
Cuarta pared (0,5 puntos).
Arlequín (0,5 puntos).
Pastoral (0,5 puntos).
Tramoyista (0,5 puntos).

- B) Corral de comedias (0,5 puntos).
Catarsis (0,5 puntos).
Aparte (0,5 puntos).
Iluminador (0,5 puntos).
Los Enamorados (0,5 puntos).

Se valorará la corrección terminológica y sintáctica y cada uno de los términos se calificará con 0,5 puntos.

ARTE ESZENIKOAK ARTES ESCÉNICAS

ARTE ESZENIKOAK / ARTES ESCÉNICAS

1.- Alderdi orokorrak.

Abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoak, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aldatzen duenak, 38. artikulua idazketa berrian ezartzen duenez, Unibertsitate-ikasketak egiteko, batxiler-titulua duten ikasleek proba bat gainditu beharko dute, eta proba horrek, Batxilergoan lortutako kalifikazioekin batera, modu objektiboan baloratuko ditu heldutasun akademikoa eta etapan eskuratutako ezagutzak, bai eta Unibertsitate-ikasketak arrakastaz jarraitzeko gaitasuna ere. Era berean, adierazi du Gobernuak, autonomia-erkidegoei kontsulta egin ondoren, proba horren oinarriko ezaugarriak ezarri beharko dituela, Unibertsitate Politikako Konferentzia Orokorrari kontsulta egin ondoren eta Unibertsitate Kontseiluak eta Estatuko Eskola Kontseiluak txostena egin ondoren.

<https://www.boe.es/buscar/pdf/2020/BOE-A-2020-17264-consolidado.pdf>

Apirilaren 5eko 243/2022 Errege Dekretuak Batxilergoko gutxieneko irakaskuntzak eta antolamendua ezartzen ditu.

<https://www.boe.es/buscar/pdf/2022/BOE-A-2022-5521-consolidado.pdf>

Geroago, 76/2023 DEKRETUA, maiatzaren 30ekoa, Batxilergoaren curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen du.

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2023/06/2302728e.pdf>

Azkenik, Ekainaren 11ko 534/2024 Errege Dekretuak graduko unibertsitate-ikasketa ofizialetara sartzeko baldintzak, sarbide-probaren oinarriko ezaugarriak eta onarpen-prozeduren oinarriko araudia arautzen ditu.

<https://www.boe.es/buscar/pdf/2024/BOE-A-2024-11858-consolidado.pdf>

2.- Oinarriko jakintzak.

A. Ondare eszenikoa

Arte eszenikoak eta hauen historia: aldaketak eta eraldaketak.

Arte eszenikoen esanahi soziala

Adierazpen ikusgarriak: erritualak eta sozialak. Herri-jaiak.

Antzezpen eszenikoaren eta performatiboaren egungo joerak.

Ahozkoak ez diren adierazpenak.

B. Adierazpen eta komunikazio eszenikoa.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

USaP
2024/25

AZTERKETA EREDUA

PAU
2024/25

MODELO DE EXAMEN



HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACION

ARTE ESZENIKOAK ARTES ESCÉNICAS

Emozioen, ideien edo testu eszenikoen adierazpena eta komunikazioa.

Egungo egitura dramatikoak eta dantzakoak.

Pertsonaia jardunean gaur egungo adierazpenetan.

Jolas dramatikoak, dantza, inprobisazioa, dramatizazioa eta sorkuntza kolektiboa.

C. Interpretazioa.

Egungo arte dramatikoaren eta dantzaren interpretazio-metodoak.

Interpretearen instrumentuetan sakontzea: gorputz-adierazpena, dantza, ahozkoa eta erritmiko-musikala. Kontzientzia emozionala.

Pertsonaia dramatikoaren egungo eraikuntza.

Sorkuntza eszenikoa: prozesua eta gauzatzea.

D. Antzezpena eta eszenifikazioa.

Obra eszeniko baten diseinua: ekipoak, faseak eta lan-arloak. Espazio eszenikoak eta espazio ez-eszenikoak. Ahozkoak ez diren hizkuntzen eta hizkuntza teknologikoen integrazioa.

Dramaturgia proiektu eszeniko baten diseinuan.

Proiektu eszeniko baten ekoizpena eta errealizazioa.

Zuzendaritza artistikoa proiektu eszenikotan.

Entseguak: zuzendaritza eszenikoaren eta kudeaketaren funtzioak.

Ikuskizun eszenikoen antzezpena.

Produktu eszenikoen erakusketa, hedapena, banaketa eta ebaluazioa.

Talde-laneko estrategiak. Zereginen banaketa eta lidergo partekatua. Gatazken konponketa.

Jakintzagaiari lotutako garapen pertsonal, sozial, akademiko eta profesionalerako aukerak.

E. Harrera arte eszenikoetan.

Adierazpen eszenikoak aztertzekeo estrategiak eta teknikak. Testua, eszenaratzearekin duen erlazioan.

Kritika eszenikoa. Erreseina bat egiteko estrategiak eta teknikak.

Jabetza intelektualaren errespetua. Norberaren sormenaren babesa.

ARTE ESZENIKOAK ARTES ESCÉNICAS

3.- Ebaluazio-irizpideak.

2023ko maiatzaren 30ean 76/2023 Dekretuan gai honi buruz dauden ebaluazio-irizpideak hartuko dira erreferentziatzat proba zuzentzeko eta baloratzeko. Proposatutakoan artean, hauek azalduko ditugu, proposatutako ariketa-ereduan duten garrantzia dela eta:

1. Garai eta tradizio desberdinetako adierazpen eszenikoak aztertzea, horien ezaugarriak deskribatuz, euren testuinguruarekin erlazioak ezarriz eta balizko eraginak eta proiektzioak identifikatuz, ondarea baloratzeko eta norberaren iruditeria aberasteko.

1.1 Hiztegi egokiarekin, garai eta tradizio desberdinetako adierazpen eszenikoak aztertzea, haien ezaugarriak deskribatuz, haien testuinguruarekin erlazioak ezarriz eta horiek modu aktiboan jasotzeko irekitasun-, interes- eta errespetu-jarrera nabarmenduz.

1.2 Garai eta tradizio desberdinetako ohitura, gustu eta erreferente eszenikoak kritikoki baloratzea, haien eboluzioari buruz eta oraingoekin duten erlazioari buruz hausnartuz.

2. Eszena-esangurako sistema, bitarteko eta kodeen adierazpen-aukerak aztertzea, jarduera praktikoen bidez, haien erabilera baliabideen erreperitorio pertsonalean txertatzeko, eta komunikazio-asmoaren arabera egokienak direnak hautatzeko irizpidea garatzeko.

2.1 Eszena-esangurako sistemak, bitartekoak eta kodeak esploratzen ekimenez, konfiantzaz eta sormenez parte hartzea, jarduera praktikoen bidez.

2.2 Ekintza dramatikoa edo dantzakoa, pertsonaien diseinua eta egoeren eta eszenen konfigurazioa islatzea, komunikazio-asmoaren arabera egokienak diren baliabideen erreperitorio pertsonaleko teknikak hautatuz.

3. Ekintza dramatikoaren edo dantza-ekintzaren birsorkuntza eta irudikapena lantzea, mota guztietako pertsonaiak eta gatazkak erakusten dituzten eszenen eraikuntza kolektibotik abiatuz, komunikazio eta negoziatio-trebetasunak garatzeko eta autoezagutza, sormena, enpatia, irudimena eta espirtu ekintzailea indartzeko hainbat egoera eta testuingurutan.

3.1 Hainbat interpretazio-teknika sormenez erabiltzea, buruz ikasteko estrategiak aplikatuz eta entseguak entzute-, elkarriketa- eta ikaskuntza-espazio gisa baloratzuz.

3.2 Ekintza eszenikoa islatzea eta irudikatzea, zehaztasuna, eraginkortasuna eta adierazkortasuna erakutsiz, zuzendaritzaren jarraibideei jarraituz, kontzentrazioari eutsiz, eta antsietatea eta beldur eszenikoa modu gidatuan kudeatuz.

ARTE ESZENIKOAK ARTES ESCÉNICAS

4. Sorkuntza eta hedapen eszenikoko proiektuak egitea, horien faseak planifikatuz, esanahi-elementuak hautatuz eta egituratuz, eta hainbat funtzio ekimenez eta erantzukizunez hartuz, komunikazio-asmoa adierazteko, kultura-ingurunea aberasteko eta garapen pertsonal, sozial, akademiko edo profesionalerako aukerak identifikatzeko.

4.1 Sorkuntza eta hedapen eszenikoko proiektu kolektiboen diseinuan ekimenez, erantzukizunez eta talde-kontzientziaz parte hartzea, plangintzan eta errealizazioan, faseak behar bezala antolatuz, zereginak modu arrazoituan banatuz, haien bideragarritasuna eta jasagarritasuna ebaluatuz, eta esangura-elementuak eta interpretazio-, antzezpen edo eszenifikazio-jarraibideak hautatuz eta egituratuz.

4.2 Sorkuntza eta hedapen eszenikoko proiektuen emaitzak ebaluatu eta aurkeztea, planteatutako helburuen eta lortutako azken produktuaren arteko erlazioa aztertuz, eta horien artean egon daitezkeen desberdintasunak azalduz.

4.3 Esparru artistikoarekin erlacionatutako garapen pertsonalerako, sozialerako, akademikorako edo profesionalerako aukerak identifikatzea, haien balio erantsia ulertuz eta iritzi pertsonala modu kritikoa eta errespetuz adieraziz.

5. Adierazpen eszenikoak kritikoki baloratzea, zein publikori zuzendua dagoen identifikatuz eta haien ezaugarriak eta aurrekontu artistikoak aztertuz, irizpide estetikoak garatzeko, ondarea zabaltzeko eta arte eszenikoez gozatzeko aukerak zabaltzeko.

5.1 Proposamen eszeniko jakin bati eskainitako harrera baloratzea, obraren ezaugarriak, eszenaratzearen testuingurua eta ikusleen erreakzioak erlacionatuz.

5.2 Erreseina eta kritika eszenikoak egitea eta partekatzea, terminologia egokia erabiliz, iturri fidagarriak kontsultatuz eta obraren ezaugarriei, aurrekontu artistikoei eta harrerari buruzko gogoeta zorrotzasunez eta sendotasunez eginez.

4.- Kalifikazio-irizpideak.

Probak antzezlan edo pasarte bat izango du beti, eta, harekin batera, galdera sorta bat, eta modu egokian erantzungo badute, pentsamendu kritikorako eta gogoetarako gaitasuna eta heldutasuna izan behar dute. 90 minutuko iraupena izango du, eta lau atal izango ditu.

1. atala. Ondare eszenikoa. Adierazpen eta komunikazio eszenikoa (3,5 puntu).

Antzezpen-proposamen bat egingo da, proposatutako obraren iruzkin eta analisisian oinarrituta, honako alderdi hauen arabera:

- Obraren fitxa: egilea, garaia, kokapen geografikoa, antzerki-generoa (0,5 puntu).

ARTE ESZENIKOAK ARTES ESCÉNICAS

- Egilearen ideia artistikoak (0,5 puntu).
- Aztertutako obra zer alderdi soziokultural eta estetikotan kokatzen den eta garai horretako antzerki- eta arte-korronteak (0,5 puntu).
- Argumentua, obran ageri den gatazka nagusia eta jorratzen dituen gaien gaurkotasuna. (1 puntu).
- Zure kezka artistikoetan oinarrituta, zer rol hartuko zenuke zure gain konpainiaren barruan? Zergatik? Zerrendatu zer funtzio edo zeregin beteko zenituzkeen (1 puntu).

Antzerki-obraren iruzkinean eta analisisian, hauek balioetsiko dira: koherentzia eta kohesioa, aberastasun lexikoa, hizkuntza-adierazpen egokia, zuzentasun ortografikoa eta gaiaren oinarriei buruzko ezagutzak.

2. atala. Harrera arte eszenikoetan. Antzerki-teoriaren edo -kritikaren gaineko testu labur bati buruzko iruzkina (1,5 puntu).

Testu-iruzkina orri betekoa izango da gehienez, eta alderdi hauek aztertu beharko ditu:

- Testuaren ideia nagusiak eta bigarren mailako ideiak identifikatu agertzen diren termino teknikoak erabilita (1,5 puntu).

Koherentzia eta kohesioa, aberastasun lexikoa, hizkuntza-adierazpen egokia, zuzentasun ortografikoa eta gaiaren oinarriei buruzko ezagutzak balioetsiko dira.

3. atala. Interpretazioa, antzezpena eta eszenifikazioa (2,5 puntu).

Aukeratu A edo B artean aukeretako bat, sorkuntza-proiektuetan egindako interpretazioarekin, antzezpenarekin eta eszenifikazioarekin lotutako alderdiak izango dituen.

Koherentzia eta kohesioa, aberastasun lexikoa, hizkuntza-adierazpen egokia, zuzentasun ortografikoa eta gaiaren oinarriei buruzko ezagutzak balioetsiko dira.

4. atala. Terminologia teknikoa (2,5 puntu).

A edo B aukeren artean bat aukeratu eta definitu agertzen diren 5 termino teknikoetako bakoitza. Erantzunek argiak eta laburrak izan behar dute. Bost lerro nahikoak dira bakoitzeko.

Zuzentasun terminologikoa eta sintaktikoa balioetsiko da, eta 0,5 puntu emango zaio bakoitzari.

5.- Obra gomendatuak.

1. Sófocles: *Antigona*.
2. W. Shakespeare: *Macbeth*.
3. Calderón de la Barca: *Bizitza Amets*.
4. Henrik Ibsen: *Andere Etxea*.
5. Lorca: *Bernarda Albaren etxea*.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

USaP
2024/25

AZTERKETA EREDUA

PAU
2024/25

MODELO DE EXAMEN



HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACION

ARTE ESZENIKOAK ARTES ESCÉNICAS

6. Bertolt Brecht: *Kaukasiar kreazko borobila.*
7. Samuel Beckett: *Godoten esperoan.*
8. Patxo Telleria: *Pankreas.*
9. Jordi Galceran: *Gronholm Metodoa.*
10. Yasmina Reza: *Artea.*

ARTE ESZENIKOAK ARTES ESCÉNICAS

1.- Aspectos generales.

La Ley Orgánica 3/2020, de 29 de diciembre, por la que se modifica la Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación, establece en la nueva redacción del artículo 38 que, para acceder a los estudios universitarios, el alumnado que esté en posesión del título de Bachiller deberá superar una prueba que, junto con las calificaciones obtenidas en Bachillerato, valorará, con carácter objetivo, la madurez académica y los conocimientos adquiridos en la etapa, así como la capacidad para seguir con éxito los estudios universitarios. Asimismo, señala que el Gobierno, previa consulta a las comunidades autónomas, deberá establecer las características básicas de dicha prueba, previa consulta a la Conferencia General de Política Universitaria y con informe previo del Consejo de Universidades y del Consejo Escolar del Estado.

<https://www.boe.es/buscar/pdf/2020/BOE-A-2020-17264-consolidado.pdf>

El Real Decreto 243/2022, de 5 de abril, establece la ordenación y las enseñanzas mínimas del Bachillerato.

<https://www.boe.es/buscar/pdf/2022/BOE-A-2022-5521-consolidado.pdf>

Posteriormente, El DECRETO 76/2023, de 30 de mayo, establece el currículo de Bachillerato e implantación del mismo en la Comunidad Autónoma de Euskadi.

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2023/06/2302728a.pdf>

Finalmente, El Real Decreto 534/2024, de 11 de junio, regula los requisitos de acceso a las enseñanzas universitarias oficiales de Grado, las características básicas de la prueba de acceso y la normativa básica de los procedimientos de admisión.

<https://www.boe.es/buscar/pdf/2024/BOE-A-2024-11858-consolidado.pdf>

2.- Saberes básicos.

A. Patrimonio escénico.
Las artes escénicas y su historia: cambios y transformaciones.
Significado social de las artes escénicas.
Manifestaciones espectaculares: rituales y sociales. Los festejos populares.
Tendencias actuales en la representación escénica y performativa.
Manifestaciones no orales.
B. Expresión y comunicación escénica.
Expresión y comunicación de emociones, ideas o textos escénicos.
Estructuras dramáticas y de danza actuales.
El personaje en acción en las manifestaciones actuales.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

USaP
2024/25

AZTERKETA EREDUA

PAU
2024/25

MODELO DE EXAMEN



HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACION

ARTE ESZENIKOAK ARTES ESCÉNICAS

Juego dramático, danza, improvisación, dramatización y creación colectiva.

C. Interpretación.

Métodos interpretativos de arte dramático y danza actuales.

Profundización en los instrumentos del intérprete: expresión corporal, danza, oral y rítmico-musical. La conciencia emocional.

La construcción actual del personaje dramático.

Creación escénica: proceso y ejecución.

D. Representación y escenificación.

El diseño de una obra escénica: equipos, fases y áreas de trabajo. Espacios escénicos y espacios no escénicos. Integración de lenguajes no orales y tecnológicos.

La dramaturgia en el diseño de un proyecto escénico.

La producción y la realización de un proyecto escénico.

La dirección artística en proyectos escénicos.

Los ensayos: funciones de la dirección escénica y regiduría.

Representación de espectáculos escénicos.

Exhibición, difusión, distribución y evaluación de productos escénicos.

Estrategias de trabajo en equipo. Distribución de tareas y liderazgo compartido. Resolución de conflictos.

Oportunidades de desarrollo personal, social, académico y profesional vinculadas con la materia.

E. Recepción en las artes escénicas.

Estrategias y técnicas de análisis de manifestaciones escénicas. El texto en su relación con la puesta en escena.

La crítica escénica. Estrategias y técnicas de elaboración de una reseña.

El respeto de la propiedad intelectual. La protección de la creatividad personal.

3.- Criterios de evaluación.

La referencia para la corrección y la valoración de la prueba son los criterios de evaluación que se incluyen en el Decreto 76/2023, del 30 de mayo, para esta materia. De entre los propuestos, señalamos los siguientes por su relevancia en el modelo de ejercicio propuesto:

- 1. Analizar manifestaciones escénicas de diferentes épocas y tradiciones, describiendo sus características, estableciendo relaciones con su contexto e identificando posibles influencias y proyecciones, para valorar el patrimonio y enriquecer el imaginario propio.**

ARTE ESZENIKOAK ARTES ESCÉNICAS

- 1.1 Analizar, con un vocabulario adecuado, manifestaciones escénicas de diferentes épocas y tradiciones, describiendo sus características, estableciendo relaciones con su contexto y evidenciando una actitud de apertura, interés y respeto en la recepción activa de las mismas.
- 1.2 Valorar críticamente los hábitos, los gustos y los referentes escénicos de diferentes épocas y tradiciones, reflexionando sobre su evolución y sobre su relación con los del presente.
- 2. Explorar las posibilidades expresivas de diferentes sistemas, medios y códigos de significación escénica, a través de actividades de carácter práctico, para incorporar su uso al repertorio personal de recursos y desarrollar el criterio de selección de los más adecuados a la intención comunicativa.**
 - 2.1 Participar, con iniciativa, confianza y creatividad, en la exploración de sistemas, medios y códigos de significación escénica, a través de actividades de carácter práctico.
 - 2.2 Recrear la acción dramática o de danza, el diseño de personajes y la configuración de situaciones y escenas, seleccionando las técnicas del repertorio personal de recursos más adecuadas a la intención comunicativa.
- 3. Abordar la recreación y representación de la acción dramática o dancística, a partir de la construcción colectiva de escenas que muestren todo tipo de personajes y conflictos, para desarrollar habilidades de comunicación y negociación y reforzar el autoconocimiento, la creatividad, la empatía, la imaginación y el espíritu emprendedor en diversas situaciones y contextos.**
 - 3.1 Emplear diferentes técnicas de interpretación de forma creativa, aplicando estrategias de memorización y valorando los ensayos como espacios de escucha, diálogo aprendizaje.
 - 3.2 Recrear y representar la acción escénica, demostrando precisión, eficacia y expresividad, siguiendo las indicaciones de la dirección, manteniendo la concentración y gestionando de forma guiada la ansiedad y el miedo escénico.
- 4. Realizar proyectos de creación y difusión escénica, planificando sus fases, seleccionando y estructurando los elementos de significación y asumiendo diferentes funciones con iniciativa y responsabilidad, para expresar una intención comunicativa, enriquecer el entorno cultural e identificar oportunidades de desarrollo personal, social, académico o profesional.**
 - 4.1 Participar, con iniciativa, responsabilidad y conciencia de grupo, en el diseño, la planificación y la realización de proyectos colectivos de creación y difusión escénica, organizando correctamente sus fases, distribuyendo de forma razonada las tareas,

ARTE ESZENIKOAK ARTES ESCÉNICAS

evaluando su viabilidad y sostenibilidad, y seleccionando y estructurando los elementos de significación, así como las directrices de interpretación, representación o escenificación.

4.2 Evaluar y presentar los resultados de proyectos de creación y difusión escénica, analizando la relación entre los objetivos planteados y el producto final obtenido, y explicando las posibles diferencias entre ellos.

4.3 Identificar oportunidades de desarrollo personal, social, académico o profesional relacionadas con el ámbito artístico, comprendiendo su valor añadido y expresando la opinión personal de forma crítica y respetuosa.

5. Valorar críticamente manifestaciones escénicas, identificando el público al que se dirigen y analizando sus características y sus presupuestos artísticos, para desarrollar el criterio estético, difundir el patrimonio y ampliar las posibilidades de disfrute de las artes escénicas.

5.1 Valorar la recepción brindada a una propuesta escénica determinada, relacionando las características de la obra, el contexto de la puesta en escena y las reacciones del público.

5.2 Realizar y compartir reseñas y críticas escénicas, empleando la terminología adecuada, consultando fuentes fiables y reflexionando, con rigor y solidez, sobre las características, los presupuestos artísticos y la recepción de la obra.

4.- Criterios de calificación.

La prueba incluirá siempre una obra o fragmento teatral acompañado de una serie de preguntas que requerirán del alumnado capacidad de pensamiento crítico, reflexión y madurez. Tendrá una duración de 90 minutos y constará de cuatro apartados.

Apartado 1. Patrimonio escénico. Expresión y comunicación escénica (3,5 puntos).

Se realizará una propuesta de escenificación basándose en el comentario y análisis de la obra propuesta en función de los aspectos siguientes:

- Ficha de la obra: autor/a, época, localización geográfica, género teatral (0,5 puntos).
- Ideas artísticas del/la autor/a (0,5 puntos).
- Aspectos socioculturales y estéticos en los que se enmarca la obra analizada, corrientes escénico-artísticas de la época (0,5 puntos).
- Argumento, conflicto principal que aborda la obra y vigencia de las temáticas que trata hoy en día (1 punto).
- En base a tus inquietudes artísticas personales, ¿qué rol o roles asumirías dentro de la compañía? ¿Por qué? Enumera las funciones o tareas que desempeñarías (1 punto).



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

USaP

2024/25

AZTERKETA EREDUA

PAU

2024/25

MODELO DE EXAMEN



HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION

ARTE ESZENIKOAK ARTES ESCÉNICAS

En la propuesta escénica se valorará la coherencia y cohesión, la riqueza léxica, la utilización de la expresión lingüística adecuada, la corrección ortográfica y los conocimientos sobre los fundamentos de la materia.

Apartado 2. Recepción en las artes escénicas. Comentario de un texto breve sobre teoría o crítica escénica (1,5 puntos).

El texto propuesto tendrá como máximo un folio y tratará sobre los siguientes aspectos:

- Identifica de las ideas principales y las ideas secundarias del texto empleando los términos técnicos que aparecen en el texto (1,5 puntos).

Se valorará la coherencia y cohesión, la riqueza léxica, la utilización de la expresión lingüística adecuada, la corrección ortográfica y los conocimientos sobre los fundamentos de la materia.

Apartado 3. Interpretación, representación y escenificación (2,5 puntos).

Elige una de las dos opciones entre A o B que constarán de aspectos relacionados con la interpretación, la representación y la escenificación realizados en proyectos de creación.

Se valorará la coherencia y cohesión, la riqueza léxica, la utilización de la expresión lingüística adecuada, la corrección ortográfica y los conocimientos sobre los fundamentos de la materia.

Apartado 4. Terminología técnica (2,5 puntos).

Elige una de las dos opciones entre A o B y define cada uno de los 5 términos técnicos que aparecen. Las respuestas deben ser claras y breves; será suficiente con cinco líneas como máximo para cada una de ellas.

Se valorará la corrección terminológica y sintáctica y cada uno de los términos se calificará con 0,5 puntos.

5.- Obras recomendadas.

1. Sófocles: *Antígona*.
2. W. Shakespeare: *Macbeth*.
3. Calderón de la Barca: *La vida es sueño*.
4. Henrik Ibsen: *Casa de muñecas*.
5. Lorca: *La casa de Bernarda Alba*.
6. Bertolt Brecht: *El círculo de tiza caucásico*.
7. Samuel Beckett: *Esperando a Godot*.
8. Patxo Telleria: *Pancreas*.
9. Jordi Galceran: *El Método Gronholm*.
10. Yasmina Reza: *Arte*.

eman la zabal zizu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

2025eko USaP

PAU 2025

ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK
CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN